

Gipuzkoakoan sartzeko lehian, Tolosaldeko zazpi bertsolari

Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasea hasiko da hilaren 25ean, eta ekainaren 2ra bitarte 74 bertsolari ariko dira; bi itzulitan banatuta 20 saio egingo dituzte, eta horietako hiru eskualdean izango dira // 5

Auzotarren 250 eskaera baino gehiago jaso ditu Tolosako Udalak

Auzoen Mahaiaren bigarren bilera irekian lehen faseko ondorioak aurkeztu dituzte: aurten, plataforma bat sortuko dute, harremanetarako // 2



«Oso pozik nago, helburua partida guztiak irabaztea baitzen»

AIARA AGIRREZABALA FUTBOLARIA

Europako 17 urtez azpiko Futbol Txapelketako bigarren fasean parte hartu du berastegiarrak; azken fasea maiatzean izango da, eta bertarako gogoz dago // 7



ANTZERKIA AIZTONDON AUKERA EDERRA

Adunan, Asteasun, Larraulen eta Zizurkilen 'Gora teloa!' lelopean II. Antzerki Aldiari ekingo diote gaur; hilaren 26ra bitarte, adin guztietako herritarrei zuzendutako 11 lan ikusteko aukera izango da // 6

zozketa

Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu

Golden Apple Quartet
agur bira

Apirilak 14, igandea, 19:30ean
Villabonako Gurea antzokian

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

Alsaia eta Selva Negra

NOAOA
BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Herriko auzoen garapen orekatua helburu duen proposamena

Tolosako Auzoen Mahaiaren bigarren bilera irekia egin dute udaletxean; udalak lehen fasean bildutako informazioa eta ateratako ondorioak aurkeztu ditu

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosako Udalak iazko uztailean egin zuen Auzoen Mahaiaren lehen bilera irekia, eta irailean abiatu zuen auzoz auzoko bileren erronda «beharrak detektatzeko eta proposamenak jasotzeko». Urtarrilaren amaierara bitarte ia astero egin dituzte bilerak horiek, eta denbora horretan jasotako informazioa aletzen aritu ostean, txosten bat osatu du udalak. Herenegun, bigarren bilera irekia egin zuen udalak, txosten horretan bildutako ondorioen berri emateko. Auzoetako edo auzo elkarteetako ordezkariak ez ezik, interesa zuten herritarrek ere joan ziren, eta pleno aretoan ia ez zen lekurik izan denez.

Lehenik eta behin, datu orokorrak helarazi zizkieten bilerara bertaratuakoei. Lehen fasean, 15 auzotako bizilagunekin elkartu da udala. Horietan, 250 eskaera baino gehiago jaso ditu, auzoen egunerokotasunari lotutakoak ia denak; gehienak, 150 inguru, hirigintzari eta mantenu planari lotutakoak dira. Eskaera horien artean, proiektu bat eta 10 proposamen daude, eta udalak nabarmendu egin zuen horien berri izatea. «Lanketa handia eskatzen dute, baita denbora ere, eta ekonomikoki ondo aztertu behar dira», adierazi zuen Josune Sanz Komunitatea eta Gobernantzako zinegotziak.

Lehen fasearen inguruan ondorengo balorazioa egin du Sanzek: «Dinamika oso aberasgarria izan da. Errealitate askorekin egin dugu topo. Behar, ideia eta proposamen asko jaso ditugu auzotarren partetik, eta horrek erakusten du badagoela aktibo izateko nahia».

AUZO ELKARTEAK, ETA GEHIAGO
Gehienbat, auzo elkarteak ari dira mahaian parte hartzen, eta Sanzen iritziz «aktibo garrantzitsuak» dira. «Beharrezkoa da auzo elkarte gisa egituratuta egotea, adibidez, laguntzak jasotzeko edota ekitaldiak antolatzeko», gaineratu zuen, eta nabar-



Lehen fasean jasotako ondorioak eta datozen hilabeteetarako erronkak ezagutu zituzten herritarrek. J.A.D.

mendu nahi izan zuen 15 auzorekin bildu dela udala, «eta ez 15 auzo elkarterekin».

Izan ere, badira modu horretara egituratuta ez dauden zenbait eremu edo gune. «Horietan ere beharrak dituzte, eta horiek jasotzeko eta bide emateko aukera zabalik dugu». Horiez gain, elkarterik ez duten baina, beharrak dituztelako, antolatuta dauden auzo edo bizilagun taldeak daude. Horiek ere kanalizatuko ditu udalak, eta auzo elkarteak sortu nahi dutenei laguntza emango die.

BEHAR DESBERDINAK

Udalak bi behar komun atzeman ditu egindako bileretan: batetik, auzoen eta udalaren arteko harreman eta komunikazioa indartu eta errazteko bideak jartzea; bestetik, diru laguntzen kudeaketa arintzeko eta errazteko bideak ematea.

Asteleheneko bileran argi utzi nahi izan zuten landa auzoen eta hiriguneko auzoen beharrak desberdinak direla. Landa auzoan, bideak, sarea, energia eta ura dira behar nagusienak. Hirigunean, berriz, ezaugarrien arabera, auzoen artean behar desberdinak topatu dituzte. Hirigintza



Udal ordezkariak, azalpenak emateaz gain, zalantzak argitu zituzten. J.A.D.

eta mantenua, etxebizitza, mugikortasuna eta kultur jarduerak dira behar nagusiak.

UDALAREN PROPOSAMENA

Lehen faseko ondorioak herritarrei helaraztearekin batera, proposamen bat egin zien udalak. «Baliteke auzoan behar puntualak izatea, eta horien berri eman nahi badiguzue, orain arte bezala jarraitu dezakezue. Bestetik, badira jarraitutasuna duten beharrak, Mantenu Planari lotutakoak. Horrez gain, antzeko ezaugarriak biltzen dituzten eremuetan proiektuak sortu eta garatzeko talde izaera izatea ere

Herria eremuka banatu nahi du udalak, beharren antzekotasunaren arabera sailkatuta

eskatzen dizuegu. Herri modura egingo dugu, elkarrekin».

Ondorioz, nitik gura igarotzea eskatu zieten herritarrei: «Proposamen guztiei batera ezingo diegu aurre egin, eta pixkana bideratzen joan nahi dugu. Lehen-tasunak elkarrekin finkatzea eta hori herri ikuspegi orokor batek egitea nahi dugu, norberak bere ingurua aztertzei harago, gainerakoena ere kontuan izatea, alegia», esan zuen Sanzek.

PLATAFORMA BAT

Datozen hilabeteetan eman beharreko urratsak zeintzuk izango diren azaldu zuen udalak. Batetik, auzo bakoitzarekin bilerak egiten jarraituko dute. Urte honetan bertan, gainera, harreman zuzenerako plataforma bat garatuko du udalak. Bertan, bere auzoko nahiz beste bateko beharren aurrean udalak hartutako erabakiak zein puntutan dauden jakin ahal izango du herritar bakoitzak. Bestetik, eremuka banatu nahi dute herria, beharren antzekotasunaren arabera sailkatuta. 2025ean, herritarren nahiak biltzen dituzten proiektuak diseinatu eta lehenetsiko dituzte, Auzoen Mahaiaren irizpideekin bat etorritik.

Maria Moliner saria jasotzera joan dira Plazida Otañokoak

Hamar liburutegiren lanari aitortza egin diete, irakurzaletasuna sustatzeko ekimenak martxan jartzeagatik eta sektore zaurgarrienei begira lan egiteagatik

Erredakzioa Aiztondo

Maria Moliner kanpainak, Espainiako Kultura Ministerioak FEMP Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioarekin elkarlanean antolatutakoak, herriar guztiei zuzendutako irakurzaletasuna sustatzeko proiektuak saritzen ditu eta arreta berezia jartzen du liburueterako sarbidean eta irakurketan aukera berdintasuna sustatzean.

Aurtengo edizioan 50.000 biztanletik beherako 562 udalerri aurkeztu dituzte proiektuak eta 370 liburutegi aukeratu dituzte. Hamar proiektu onenen artean hautatu dute Aiztondoko Plazida Otaño eta aurreko ostiralean

jaso zuten 10.000 euroko saria Arantxa Zabala eta Irene Urruzola liburuzainek.

«Aitortza hau guretzako pizgarria da irakurzaletasuna bultzatzeko lanean jarrai dezagun, beti ere inklusioaren alde, aniztasuna errespetatuz eta ezberdinen arteko elkarbizitza bultzatuz. Gainera, berrikuntza, sorkuntza eta gure ofizioarekiko pasioa baloratu dituztela sentitzen dugu», esan du sari banaketa ekitaldian Zabalak. Urruzolak, bere aldetik, saria Plazida Otañoko komunitatea osatzen dutenekin partekatu nahi izan du eta eskerrak eman dizkie proposatutako ekimenean parte hartzeko agertu duten jarrera baikorragatik.



Ostiralean, Arantxa Zabala eta Irene Urruzola liburuzainak saria jasotzen. FEMP


Ingurune naturalean haur eskola zerbitzua abian dute Hernialden

Udalak garai bateko apaiz etxea erosi ondoren, beheko solairuan egokitu dute haur eskola; iazko ikasturtea izan zuten lehena eta gaur egun lau ume dabilta haur eskolan

Jon Miranda Hernialde

Ekhi, Xuar, Jone eta Noa. Lau ume eta aurki hasiko den beste bat daude izena emanda Hernialdeko Haurreskolan. 0 eta 3 urte arteko 10 haurrentzako tokiak dute bertan eta Maitane Beloki eta Itxaso Larrañaga hezitzaileek ezagutzera eman nahi dute bertan eskaintzen duten zerbitzua. «Familia berriak etorri dira Hernialdera bizitzera eta haientzat zerbitzu ezin hobea da. Etxe ondo ondoan dute haur eskola bat», esan du Belokik. Datorren ikasturteari begira, sei ume izango dituztela aurreikusitako baina izena eman nahi dutenek aukera izango dute apirilaren 22tik maiatzaren 10era. Interesaturako gurasoei espazioa eta euren lana erakusteko prestutasuna adierazi dute hezitzaileek.

Abantaila handi bat du Hernialdeko Haurreskolak Larrañagaren hitzetan: kanpo espazioa. Enparantza auzoko 17. zenbakian kokatua dago, garai bateko apaiz etxean, eta kaletik itxitura bat zeharkatuta umeek jolaserako toki zabala dute. «Eskolak duen altxorrik handiena da guretzat. Ia egunero ateratzen gara umeekin kanpo espaziora», esan du Belokik. Udalak etxetxo bat atondu du, berriki, umeek bertan jolas dezaten. «Udaletik erraztasun guztiak



Haur eskolaren kanpo espazioan jolaserako gunea dute umeek. J.M.

ematen ari zaizkigu, haientzat ere herria bizirik mantentzeko estrategikoa da haur eskola indartsu egotea», azpimarratu du Belokik. Pozik azaldu dira hezitzaileak eta pribilegiotzat jo dute bertan lan egitea: «Abantaila da guretzat, ume gutxi egonik arreta pertsonalizatua eskaini diezaiekegulako».

HAURRAK ERDIGUNEAN

Haurra erdigunean jarri eta haien beharrak asetzen saiatzen dira Hernialdeko Haurreskolan. «Mugimendu librean sinesten dugu, egituratu gabeko jolasak dauzkagu, ahalik eta material naturalena erabiltzen dugu eta altzari guztiak umeen altueran jarrita daude», dio Belokik. Manipulaziorako esperimentazio mahaia dau-

kate eskolaren sarreran eta Larrañagak aipatu du eskolatik kanporako txangoak ere egiten dituztela; herriko animaliei jaten ematera, herriko parkera edota frontoira egiten dituzte irteerak.

Eskola barruan, jolaserako espazio zabala, sukaldea, aldagela eta logela dituzte umeek. Etxe giroa sortzen saiatzen direla aipatu dute bi hezitzaileek. 15:00 arte egiten dute lan, baina atekak 08:00etan zabaltzen dituzte eta umeak 14:00 aldera egiten dute martxa.

«Konpromisorik gabe» eskola herriarrei erakusteko prest agertu dira Beloki eta Larrañaga. 943 05 32 80 telefono zenbakian izango dute gurasoek zerbitzuaren inguruko informazio gehiago.

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Hilekoaz elkarrengandik ikasteko aukera ematen duen ikastaroa

Ziklikoki bizi doako ikastaroa hasiko da hilaren 19an, eta zabalik dago izena emateko epea; euskaraz izango dira saioak eta itzulpena behar izanez gero aurretik jakinarazi beharko da

Aitor Arroyo Askarai

Hilekoaren inguruko «tabuak» puskatzea, haren inguruko eza-gutza zabaltzea eta emakume belaunaldi ezberdinak elkartzea ditu helburu, besteak beste, Ziklikoki bizi ikastaroak. Guztira, lau saio egingo dituzte eta lehen datorren asteko ostiralean, hilaren 19an, izango da. Ekimena elkarlanean antolatu dute Ikaztegieta Udalak eta Ikaztegieta Emakume Taldeak. Ikastaroa doakoa da eta zabalik dago izena emateko epea.

Jaione Gisasola hezitzaile menstrualak gidatuko ditu saioak, eta Uxue Larrea emakume taldeko kideak azaldu du arrazoiak: «Bakoitzak bere esperientziak partekatzekeo tartea izango du, baina gaiaren inguruko eza-gutza ere bultzatu nahi dugu; eta horretarako beharrezkoa da aditu bat izatea». Izan ere, Larreak aipatu du hilekoaren zein menopausiaren inguruan «datu faltsu asko» daudela eta horiek baldintzatzen dutela jendeak nola ikusten dituen gai horiek.

Hari berari tiraka, emakume taldeko kideak nabarmendu du ikastaroko saioetan parte hartu daitekeela norberaren esperientzia elkarbanatu gabe ere: «Espazio hau oso aproposa izan daiteke esperientziak partekatzekeo, baina besteena entzunez ere asko ikasten da».

SAIOEN HURRENKERA

Abiapuntu euren «ezagutza eta ezaugarriak» izango badituzte ere, lehen eta laugarren saioak «pixka bat teorikoagoak» izango direla aipatu du antolatzaileak; kontrara, «praktikoagoak» izango dira bigarren eta hirugarrena. Dena dela, Larreak hitzetan hainbat ezaugarri errepikatuko dira saioz saio: «Eduki horietara iristea da helburua, baina betiere metodologia aktibo bidez, elkarrengandik ikasiz eta esperientziak partekatuz».

Hainbat gai landuko dituzte saioz saio. Lehenengoan, apirilaren 19an, zikloaren lau fase ezberdin eza-gutuko dituzte eta



Uxue Larrea Ikaztegieta Emakume Taldeko kidea. A. ARROYO

baita «gorputz atal garrantzitsuen» inguruko ezaugarriak eta funtzionamendua ere.

Bigarren saioa maiatzaren 3an izango da, eta bertan jorratuko dute norberak zikloaren faseak eta ezaugarriak identifikatzen ikastea, eta «teknika ezberdinak» eza-gutzea eta lantzea «aurre egiteko» aurre-hilekoan zein hilekoan ager daitezkeen sintomei. Maiatzaren 10ean egingo dute ikastaroko hirugarren saioa. Hitzordu horretan hilekoan erabiltzen diren produktuei buruz ari-tuko dira, hain zuzen, nola bererabil daitezkeen ikasiko dute eta horien inguruko «mitoak puskatzea» izango dute helburu.

Azken saioa, berriz, maiatzaren 24an izango da eta helburu izango du «elikadura ziklikoa-

«Oso aproposa izan daiteke esperientziak partekatzekeo, baina besteena entzunez ere asko ikasten da»

UXUE LARREA
EMAKUME TALDEKO KIDEA

ren» oinarriak lantzea eta jasotzea. Bertan Gisasolak hainbat errezeta partekatuko ditu eta «liburuak, dokumentalak eta bestelakoak» ere gomendatuko ditu «gaian sakondu» nahi dutenentzat.

BELAUNALDIEN TOPALEKU

Saioen helburuetako beste bat da herriko «emakume belaunaldi ezberdinak» elkartzea. Hain zuzen, «hutsune bat» baitago

Larrearen ustez: «Azken urteetan galdu egin ditugu belaunaldi ezberdinek elkarrengandik ikasteko espazioak. Galdu edo beharbada ez ditugu eraiki oraindik».

Belaunaldi ezberdinek kezka ezberdinak izaten dituzte, eta hori nabaritu dute ikastaroko gaia aukeratzeko: «Hilekoaren inguruko formakuntza nahia orokorra da; baina menopausiari buruzko informazioa ere jaso nahi dute taldeko hainbat emakumek».

Hori horrela, hurrengo urtera begira beste ikastaro bat antolatzeko aurreikusten dutela aipatu dute. Ez da, gainera, datorren ikasturterako asmo bakarra: herriko ikastetxean ere beste tailer bat egiteko asmoa dute Lehen

Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin.

Hasiera batean herrikoei bideratuta antolatu dute aurtengo ekimena, baina nabarmendu dute gonbidatuta daudela «Ikaztegieta kanpokoak» ere. Zentzu horretan, gogora ekarri du izena emateko Ikaztegieta Udaleko 943 65 33 29 telefono zenbakira deitu behar dela; eta, bestela, 688 635 775 mugikorre-ra. Euskaraz izango da ikastaroa eta, norbaitek itzulpen zerbitzua beharko balu, aurretik jakinarazteko eskatu dute antolatzaileek.

Aurten emakumeentzat bakarrik antolatu dute, baina Larreak nabarmendu du «beharbada, hurrengo pausua» izan litekeela gizonezkoei parte hartzeko aukera ematea.

EH Bilduren ekitaldi nazionala larunbatean, Tolosan

Leyre Carrasco Tolosa

Martxan da EH Bilduren Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina. Hamabost egun haue-
tan, herriz herri eta auzoz auzo ekitaldiak, eskuorri banaketak eta bestelako hamarnaka ekin-
tza izaten ari dira, baina Gipuzkoako ekitaldi nagusia Tolosan izango dute. Hain justu, larunbat honetan, 12:00etan hasita izango da ekitaldia, Beotibar pilotalekuan. EH Bilduko kide guztiak elkartuko dira eta bertan izango dira Pello Otxandiano lehendakari-
gaia, Maddalen Iriarte EAE-ko parlamentu taldeko bozeramailea eta Arnaldo Otegi koordinatzaile nagusia.

«EH Bilduren indarra, ilusioa eta kemena, Tolosako Beotibar pilotalekuan sentiaraziko eta sentituko ditugu», adierazi dute EH Bildutik.

SOLASALDIA, GAUR

Bestetik, EH Bilduren solasaldia izango da gaur, 19:00etan, Tolosako Zerkausian. *Osakidetza zutik jartzeko proposamena* izenburupean, osasun zebitzu publikoak azken urteotan jasan duen «gainbehera» salatu eta Osakidetza «zutik jartzeko» proposamenak aurkeztuko ditu Rebe-
ka Ubera EH Bilduren legebiltzarkideak gidatuko duen gaurko saioan.

Eskualdeko zazpi bertsolari, Gipuzkoa Bertsotan fasean

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea hilaren 25ean hasiko da; 74 bertsolari ariko dira kantuan, eta hiru saio izango dira Tolosaldean

Leyre Carrasco Tolosa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea hilaren 25ean hasiko da eta ekainaren 2ra bitarte, 20 saio izango dira, bi itzulitan. Eskualdeari dagokionez 7 bertsolari ariko dira; Asteasuko Beñat Zeberio, Amasako Beñat Iguaran, Anoetako Txomin Azpiroz, Ikaztegieta Jon Luzuriaga, Berastegiko Iñigo Gorostarzu *Etxorde*, Zizurkilgo Izarne Zelaia eta Irurako Jon Mendiluze. Gai jartzaileen artean ere badago eskualdekorik, Igotz Alkorta zizurkildarra, Iker Iriarte alegiarra, Imanol Artola Felix amezketarra eta Ion Zaldúa billabonatarra ariko baitira. Epaille lanetan Zigor Leunda billabonatarra ariko da.

Lehen itzuliko bi saio eskualdean izango dira: Altzon maiatzaren 2an eta Anoetan maiatzaren 10ean. Ikaztegieta Jon Luzuriaga ariko da azken honetan. Bigarren itzuliko saio bat Alegian izango da, maiatzaren 26an.

Gipuzkoako Bertsotale Elkar-
teak esan du aurtengo edizioak



Eskualdeko zazpi bertsolariak. ATARIA

berezitasun ugari dakartzala. Batetik, bere iraupena: hilabete eta erdi pasatxo iraungo du, 20 saio jokatu baitira. Saioak bikoitzak izango dira, lehen itzuliko lehena eta azkena izan ezik. Lehen itzulian 12 saio izango dira, ostegun eta ostiraletan; bigarren, aldiz, 8, larunbat eta igandeetan. Baina bere egitura ez da berritasun bakarra, txapelketaren forma bera ere aldatu baita. Ariketetan berritasunak daude, eta horien lanketaren atzean egon da Bertsogintza Batzordea, Talde Antolatzailearen barruan.

BERTSO-ESKOLAK OINARRI

Txapelketako sailkapen fase hau gauzatu dadin «lehengaia ego-
tea» ezinbestekoa dela esan du Gipuzkoako Bertsotale Elkartek, hau da, «bertsolariak, antolatzaileak, gai-jartzaileak, epaileak eta, oro har, bertsotaleak». «Bertsolaritzaren ekosistema honetan lehengai hori sortzen dutenen lana eskertu eta lan horren aitortza egin nahi diegu bertso-
eskolei: jakitun baikara beraiek direla aipatutako ekosistema horren eusle», gaineratu du.

Hain zuzen ere, aurtengo irudia eta mezua ildo horretatik di-

seinatu dituzte. Unai Gaztelumendiren irudiak bertso-eskole-
tako lehen belaunaldi inguruko irudiak dakartza, behean Uztapide duela. «Zuri-beltzeko argazki horretatik gaur eguneko bertso unibertsora heltzeko ezinbesteko pausoa izan dira bertso-eskolak, eta horixe irudikatu nahi du, hain zuzen ere, Gaztelumendiren irudiak».

Horri lotuta, txapelketaren beste berritasunetako bat da saio bakoitzaren ostean afari-merienda antolatuko dutela tokian tokiko bertso-eskolek. Keinu hori, hain zuzen ere, aurtengo txapelketaren mezuarekin bat datorrela esan dute antolatzaileek, «bertso-eskolak erdigunean jartzen baititu, eta bertsoaren unibertsoa zabaltzen baitu».

Saioetarako sarrerak salgai daude jada eta txapelketaren jarraipena eta informazio osoa Gipuzkoako Bertsotale Elkartearen sare sozialetan eta webgunean jarriko dituztela esan dute.

ESKUALDEKO SAIOAK

Lehen itzulia

Altzo. Maiatzak 2, 19:00etan, kultur etxean. Bertsolariak: Danel Olano, Eneritz Artetxe, Iker Ormazabal, Jon Gurrutxaga, Manex Mujika eta Mikel Etxezarreta.

Anoeta. Maiatzak 10, 19:00etan, Mikelasagasti auditorioan. Bertsolariak: Beñat Jauregi, German Urteaga, Jon Luzuriaga, Julene Iturbe, Kepa Isasi eta Mikel Eizagirre.

Bigarren itzulia

Alegia. Maiatzak 26, 17:00etan, Elizpen. Bertsolariak: bigarren itzulira sailkatutako 48 bertsolarien artean egindako zozketan erabakiko dira.

Ikastaroak eta hitzaldiak egingo dituzte, Elduainen

Leyre Carrasco Elduain

Apirileko kultur agenda antolatu dute Elduainen, eta herriko festak antolatzeko bilerarekin zabalduko dute ostegunean, 20:00etan, udaletxean. Aurtun, irailaren 6tik 8ra bitartean izango dute festa Elduainen eta ideia berriak, aspadikoak edota urterokoak biltzeko asmoa izango dute bertan herritar guztiekin batera. Datozen asteetan xaboa egiten ikasteko ikastaroei eman-
go diote hasiera. Larunbatean izango da lehena, 16:00etatik

18:00etara, Urdelar biltokian. Tailerra 6 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzendua dago eta xaboa glizerinarekin egiten ikasiko dute. Amaitzean, parte hartzaileek xaboa etxera eramanez ahaliko dute. Izen ematea udaletxean egin beharko da asteazkena baino lehen.

Bigarren ikastaroa, berriz, apirilaren 20an izango da, 16:00etatik 18:00etara, Urdelar biltokian. Tailerra 14 urtetik gorakoentzako izango da eta Izpiliku kosmetika naturaleko artisauek etxeko olio birziklatuarekin xaboa egi-

ten erakutsiko dute. Izen ematea udaletxean egin beharko da apirilaren 18a baino lehen eta 5 euroko kostua izango du.

Amaitzeko, apirilaren 24an, Jon Artano kazetari eta idazle zetoarrak argitaratu berri duen *Juana* liburua aurkeztuko du, 18:00etan. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak ematen duten Tene Mujika Bekari esker argitaratu du zetoarrak lana, eta Juana Perea Plata hispano-kolonbiar hiritartasun bikoitza zuen aktibista, ekintzailea eta enpresariaren istorioa du ardatz.

Topak mural pintaketa egingo du larunbatean

Leyre Carrasco Tolosa

Tolosalde Osasun Publikoaren Aldeko plataformak (TOPA) elkarretaratzea deitu du larunbaterako, 11:00etan, Tolosako suhiltzaileen parkearen parean. Ondoren, osasun publikoaren aldeko mural pintaketa egingo dute, *eta bitartean zer?* lelopean.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Batzordeko adierazpenei erantzuteko agerraldia egin zuten

otsailaren 29an, eta bertan azaldu zuten, «sailburuak aurkezpenean esan bezala, Tolosan egiteko asmoa dutena ez da eskualdeko ospitale publiko bat».

Osasun Batzordetik proposatzen dutena uste dute «bigarren mailako kalitatea» duen zerbitzua dela, eta beste hainbat gai ere jarri zituzten mahai gainean: «Kokapen arazoak, oso leku txikia da eta trafikoa handia dago inguru horretan».

‘Gora teloia’ lelopean antzerki eskaintza egingo dute Aiztondon

Gaur hasita, apirilaren 26ra arte emanaldiak izango dira Aiztondoko Larraul, Aduna, Asteasu eta Zizurkilen; adin guztietako publikoarentzat prestatu dituzte emanaldiak

Jon Miranda Asteasu

Larraul, Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo udalek *Gora teloia* izenarekin antolatzen duten antzerki zikloa aurkeztu dute. Gaur hasiko da programazioa eta hilaren 26ra arte adin guztietako herritarrentzako emanaldiak izango dira Aiztondo bailarako lau herrietan.

Iazkoak arrakasta izan zuela ikusita antolatu dute aurten bigarren edizioa eta Pili Legarra Asteasuk alkateak nabarmendu du lau herrien arteko elkarlanaren emaitza dela egunotarako antolatu duten antzerki zikloa. «Udalerrietako bakoitzak bere aurrekontuarekin programazio mugatu bat baino ezingo luke eskaini eta lau herriek ekarpena eginda, antzerki aldi indartsu eta interesgarri bat antolatu dugu», esan du Legarrak. Gaineratu duenez, lankidetzari esker ia hila osoa hartuko duen programazioa eskaintzeko moduan izango dira lau herriak.

Aiztondo bailarako lau udalerrien arteko elkarlanari balioa eman nahi izan dio, baita ere, Kristina Rodriguez Adunako alkateak. Era berean, adin tarte ezberdinetara egokitutako obrak ikusteko aukera izango dela azpimarratu du: «Umeak antzerki mundura hurbildu eta gaztetxo-ek zuzendutako antzezlan ezberdinak eskaintzen jarri ditugu gure indarrak». Tartean izango dira herriko ikastetxeekin antolatutako emanaldiak. Zizurkilen, esate baterako, Pello Mari Otaño eta San Millan eskoletako umeek saioak eskainiko dituzte apirilaren 18an Atxulondo kultur etxean.

Haurrei zuzendutako programazio horretan egin du azpimarra Maite Amenabar Zizurkilgo alkateak ere. Apirilaren 15ean, 16an eta 17an Atxulondo kultur etxean ikastetxeetako haurrentzat izango diren emanaldiak aipatu ditu. Gaztetxoenei zuzendutako programazioa, dena den, gaur abiatuko da Asteasun. Pello Errotan *Uxa Uxa beldurra* antzerki lana izango dute gaur arra-



Ezkerrean Maite Amenabar Zizurkilgo alkatea, erdian Pili Legarra Asteasuk eta eskuinean Kristina Rodriguez Adunakoa, II. Antzerki Aldia aurkezten. J.M.

II. AIZTONDOKO ANTZERKI ALDIA

Apirilak 10, asteazkena

Asteasu

15:00. Pello Errota eskolan
Uxa Uxa beldurra antzerki lana.

Apirilak 15, astelehena

Zizurkil

11:00. Atxulondo kultur etxean
Haur Hezkuntzako 3-5 mailetakoko ikasleentzat *Beldartxo jatuna*.

Apirilak 16, asteartea

Zizurkil

11:00. Atxulondo kultur etxean

LHko 1-3ko ikasleentzat
Frankenstein lana.

Apirilak 17, asteazkena

Zizurkil

11:00. *Hodei magoa* lana eskainiko dute LHko 4-6 mailakoentzat Atxulondo kultur etxean.

Apirilak 18, osteguna

Zizurkil

11:00. Otaño eta San Millan ikastetxeetako ikasleen saioa Atxulondo kultur etxean.

Apirilak 19, ostirala

Aduna

21:30. Adunako pilotalekuan *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzerki lana.

Apirilak 21, igandea

Zizurkil

19:00. Atxulondo kultur etxean
Irabazi. Sarrerak 3 euroan.

Apirilak 23, asteartea

Larraul

18:00. Gune polibalentean
Yogi ipuinak lana.

Apirilak 24, asteazkena

Asteasu

15:15. Pello Errota eskolan *Munduari bira* 80 egunean antzerki lana.

Apirilak 25, osteguna

Asteasu

19:30. Udaletxeko ikuskizun aretoan *Futbolistok* antzerki lana.

Apirilak 26, ostirala

Aduna

16:15. Elordi elkartean
Egunen batean antzerki lana.

tsaldean, eta apirilaren 24an, *Munduari bira* 80 egunean obraz gozatzeko aukera izango dute.

«Eskertzekoa da, benetan, ekimen honen antolakuntzan bailarako ikastetxeek agertu duten inplikazioa», esan du Rodriguezek. Adin tarte ezberdinak kontuan hartzearekin batera, bailarako herri ezberdinetan, gutxienez, saio bana eskaintzeko ahalegina egin dutela aipatu dute bailarako hiru alkateak. Horregatik, La-

rraulen apirilaren 23an ipuin kontaketa saio bat izango da eta beste antzerki lan bat eskainiko dute, Adunan, apirilaren 26an.

FAMILIA OSOARENTZAT

Helduentzako programazioari dagokionez eskaintza «interesgarria» izango dela aipatu du Amenabarrek. Adunan, Asteasun eta Zizurkilen emanaldi bana prestatu dute horretarako. «Adunan, adibidez, *Kutsidazu*

bidea, *Ixabel* lana ikusteko aukera izango da hilaren 17an, frontoian; Asteasun, berriz, Zuhaitz Gurrutxagaren *Futbolistok* eskainiko dugu udaletxeko ikusentzunezkoen aretoan apirilaren 25ean; eta Zizurkilen, apirilaren 21ean, Atxulondo kultur etxean, Jon Plazaolaren umoreaz gozatzeko aukera izango da *Irabazi* izeneko emanaldiarekin». Sarre-
ra guztiak doakoak izango dira, baina azken honetan, hiru euro-

ko sarrera kobratuko dute antolatzaileek.

Aiztondo bailarako lau herrien arteko elkarlanaren emaitza bezala aurkeztu dute II. Antzerki Aldia eta alkateek antolatutako saioetan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak eta baita bisitariak ere. «Teloia altxa dugu eta Aiztondo bailaran agertokiak prest egongo dira datozen asteetan», esanez amaitu du agerraldia Zizurkilgo alkateak.



L. CARRASCO

«Joaten banaiz, gogotsu eta irabazteko esperantzarekin joango gara»

AIARA AGIRREZABALA FUTBOLARIA

Leyre Carrasco Berastegi

17 urtez azpiko Europako Futbol Txapelketa izango da jokoan Suedian, maiatzaren 5etik 18ra. Martxoan bigarren fasea jokatu zen, eta Aiara Agirrezabalak (Berastegi, 2008) Espainiako selekzioarekin parte hartu zuen. Partida guztiak irabazi ondoren, Suedian jokatu den azken faserako sailkatu ziren. Zozketa egin da, eta B multzoan egokitu zaio Espainiako selekzioari, eta aurkari Portugal, Polonia eta Belgika izango ditu.

Zer moduz joan da Europako Txapelketara sailkatzeko bigarren fasea?

Egia esan, oso ondo joan da. Partida guztiak irabaztea zen helburua, bestela hurrengo fasera ez ginelako pasatzen. Helburuak betetzeak esperientzia bera ere hobea egiten du, eta talde giroarekin eta orokorrean oso gustura egon naiz.

Zer sentitzen duzu lehenengo ak geratzegatik?

Ez genituen aurkari errazak, ba-

tez ere bertako taldea, Herbehereak. Beti goialdean ibiltzen den selekzioa da, eta beraien aurka normala da urduritasuna izatea. Azkeneko partida jokatu genuen beraien kontra, eta hor jokatzeko genuen hurrengo fasera pasako ginen ala ez. Irabazteak eta lehenengo geratzeko hurrengo faserako atea ireki zigun, eta oso pozik horregatik.

Suediara joango zarete orain. Gogoz zaude?

Oraindik ez dakit Suediara joango naizen, hainbat gauza gertatu daitezkeelako hurrengo deialdira arte. Baina joaten banaiz, gogotsu eta irabazteko esperantzarekin joango gara.

Zein aurreikuspen egiten duzu Europako Txapelketa-rako?

Dagoeneko multzoak jarri dituzte, eta azken fasea denez, geroz eta maila altuagoa dago, eta geroz eta zailagoa izango da beste selekzioei irabaztea. Baina selekzio hau beti ibili izan da lehenengo postuetan, eta aurten ere maila ona emango duela espero dut.

Miren Larrarte, pilotari onena Europako Txapelketan

Euskal Selekzioak Portugalen egin den Europako Pilota Txapelketan parte hartu du; bertan izan dira Miren Larrarte bidaniarra, eta Iñaki Esnal eta Andoni Urbieta larrauldarrak

Imanol Garcia Landa

Europako Pilota Txapelketa jokatu zen aurreko astean, eta bertan Euskal Selekzioak parte hartu zuen, tartean eskualdeko pilotariekin: Miren Larrarte bidaniarra, eta Iñaki Esnal eta Andoni Urbieta larrauldarrak. Emaizta bikainak lortu zituzten, eta Larrartek emakumezko pilotari onenaren saria jaso zuen. «Sekulako ilusioa egin zidan», esan du bidaniarrak. «Horrelako sariak ez dizkizute egunero ematen, eta gainera Europako Txapelketa batean eta hainbeste jokalariren artean; ikaragarritzko poza eta ilusioa egin zidan».

Hiru modalitatetan aritu ziren emakumezkoak: nazioarteko jokoak, one wall eta pilota portugaldarra. Gizonezkoek, hiru horiez gain, llargues izenekoan ere parte hartu zuten. Emakumezkoek hiruretan urrezko domina lortu zuten, eta gizonezkoek urrea pilota portugaldarrean eta brontzezkoa beste hiruretan. «Nazioarteko jokoan maila ona emango genuela espero nuen, aurretik Munduko Txapelketa irabazi egin genuelako, eta baita pilota portugaldarrean ere. One wall modalitatean genuen gehienbat beldurra, herbeheretarrek eta valentziarrek oso ondo kontrolatzen dutelako. Azkenean urrea lortu genuen eta oso pozik», esan du Larrartek.

«Ez dira hain ohiko modalitateak, eta hemen gutxi batzuk gaude horietan jokatzeko dugu», azaldu du Larrartek. Nazioarteko jokoak bote luzearen antzeko modalitatea dela dio: «Pilota gomazkoa da, arinagoa, eta arauen aldetik sinpleagoa da, ez daude arraiak». Emakumezkoetan lau kide izaten dira talde bakoitzean eta gizonezkoetan bost kide. Bestalde, one wall modalitatean frontisa bakarrik dago, ez dago txaparik, eta pilota frontenisekoaren oso antzekoa da. Aurreko bi horietan parte hartu zuen Larrartek.



Miren Larrarte, eskuinean, pilotari onenaren saria jasotzen. ATARIA



Portugalera joan ziren Euskal Selekzioko kideak. ATARIA


Txapelketa egiten den lekua arabera bertako modalitate bat jarri ohi da, ezagutu eta horri bultzada emateko, eta oraingoan pilota portugaldarra izan da sartu dutena. «Oso berezia da modalitate hau; niretzat ere berria izan da», esan du bidaniarrak.

«Eliza baten paretan jokatzeko da, bertan atea duela, eta helburua da pilotak barruan egitea botea, eta berdin du nola iritsi den. Talde bakoitzean hiru pilotarik jokatzeko dute, pilota oso goxoa izaten da, eta nahiko motela nire ustez».



ASTEAZKENA, 2024KO APIRILAK 10
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 10

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Ttipi-Ttapa egitasmoa.
Herriko plazatik 10:30ean abiatuta.
Asteasu. II. Antzerki Aldia: *Uxauxa*
beldurra, eskolan, 15:00etan.
Ikaztegieta. Tomatearen tailerra,
baratzeko parkean, 18:00etan.
Orendain. Haur eta nerabeen
emozioen bidelagun; nola zaindu
seme-alaben emozioak hitzaldia,
liburutegian, 18:00etan.
Tolosa. Tolosako parkeetan
hegaztien kantua ezagutzen irteera,
Bidaiarien Txokoan, 18:00etan.
Zizurkil. Internet, pantailak, bideojo-
koak, sare sozialak... onurak eta
gatazkak. Kultur etxean, 18:00etan.
Tolosa. V. Gastronomika: 19:00. En-
tsalada errusiar lehiaketa, Berazubín.

Hauteskunde kanpaina

Tolosa. EH Bilduren solasaldia
Zerkausan: *Osakidetza* zutik
jartzeko proposamena, Rebeka
Uberarekin, 19:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.
10:00. Galtzaundi.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
14:00. Telesailak eta zinema.
18:00. Desafioa. Herri kirolak.

28 KANALA

11:00. Playlist.
13:30. Tolosaldea Gertutik.
15:00. Elkarriketap - Odei Esnaola.
18:30. Urrutira joan gabe - Xoxote.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Ate ondokoak 2x04.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa.
Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz
Galarza. Larramendi 6 behe, 1.
943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Pixkana
egonkortzen hasiko da
giroa. Goizean hodeiak
oso ugariak izango dira eta
oraindik euri txiki modura
zertxobait bustiko du.
Arratsaldean atergi geratuko da
eta ostarte batzuk zabalduko dira.
Ipar-haizea nagusituko da eta
tenperaturak gora egingo du, 12-
15 gradu artean joko duelarik goia
egunaren erdiko orduetan.

Bihar. Giro ederra izango
dugu. Goiz hotz baten
ostean, egunean zehar
hodei bakanen bat edo beste
ikusiko bada ere, zeruan urdina
nagusituko da eta eguraldi
eguzkitsua eta ederra nagusituko
da. Haizeak ipar/ipar-ekialdetik
joko du eta tenperaturak gorako
bideari eutsiko dio, 14-17 graduan
joko duelarik goia egunaren erdiko
orduetan.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain
hartzien egunkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.



ASFALTATZE LANEKIN ARI DIRA

Egoera kaxkarrean dauden herriko hainbat zonaldeko errepideak hobetzeko lanekin hasi da aste honetan Amasa-Villabonako Udalak. Errepideetan dauden hainbat zulo konponduko dituzte, lehenik fresaketa lanak egingez eta ondoren asfaltatuz. Laskibarko gasolindegiko sarreran, Ubegun industrialdean, Sacemgo biribilgunean eta Zizurkilgo sarrera arteko errepidean eta Sacemgo industria poligonoaren barnealdean egingo dituzten lanak. 42.319,35 euroko inbertsioa egin du udalak, eta Asfaltos Urretxu enpresa kontratatatu du lanak egiteko. VILLABONAKO UDALA

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberrak...


www.ataria.eus - 107.6 fm -

solumobel

Adinekoiei
segurtasuna eta **irisgarritasuna**
ematen dien soluzioa.

Altzari egokituen soluzio integralak

Egokitu zure sukaldea
zure bizitzara
1.990€* -tik hasita



*Basic-pack eguneraketa.

Informazio gehiago:
www.solumobel.com
943 96 89 64

